

185 positibo berri  
8.602 positibo guztira\*

1.757 hildako EAEn  
58 UCIn EAEn

eguneratu gabe 542 positibo berri  
12.240 positibo guztira  
8 hildako UCIn Nafarroan

\*HERNANIN 243, ASTIGARRAGAN 51

## Energia eta jasangarritasunarekin lotuta, tailer bana Hernanin eta Astigarragan

Argitu programaren barruan, etxean energia aurrezteko aukerez ariko dira bihar Biterin, eta ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarriko aukerei buruz ostegunean Astigarragako udaletxean. Izena eman behar da.

### ASTIGARRAGA-HERNANI ARGITU

Energia aurreztearekin eta mugikortasun jasangarriarekin lotuta, tailer bana eskainiko dute Hernanin eta Astigarragan, aste honetan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Sailak antolatuta ditu biak, Argitu programaren barruan, Hernaniko eta Astigarragako Udalekin elkarlanean.

Hernanin, etxeetan, enpresetan zein elkarteetan energia eta dirua aurrezteari buruzko tailerra eskainiko dute bihar, arratsaldeko 18:00etan Biterin: *Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabe*. Tailerrean parte hartzeko, hori bai, izena eman behar da aldezturirik, tokia mugatua izango

baita. Gaur eguerdiko 12:00ak arte dago epea horretarako, eta bi bide daude aukeran: idatzi [argitu@gipuzkoa.eus](mailto:argitu@gipuzkoa.eus) helbidera, edo deitu 628 532 303 telefonora.

### Ibilgailu elektrikoak buruz etzidamu, Astigarragan

Mugikortasun Astearen barruan antolatuta dute, aldiz, Astigarragako saioa. Etzidamu izango da, ostegunean, 18:00etan hasita udaletxeako pleno aretoan. Bertan ariko dira ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarriko aukerei buruz. Aditzera emango dute merkatuan dauden ibilgailu elektrikoak ezaugarri, kontsumo, salneurri, kargatzeko eskakizun eta bestelako alderdiei buruzko informazioa, eta baita bestelako aukera batzuei buruz-



Energia berriztagarriei buruzko tailerra eskaini zuten azaroan, Astigarragan.

koa ere: ibilgailu hibridoak, bizikleta eta patinete elektrikoak...

Era berean, hausnarketa egingo dute, motorrik gabeko mugikortasun aukerak aztertuz, eta ibilgailu elektrikoak partekatzeak dauden esperientzien berri emanez.

Osasun eta higiegi neurriak

bermatzeko, 10 laguneko taldea izango da gehienez, eta izena eman behar da aldezturirik; bihar da azkeneko eguna: [argitu@gipuzkoa.eus](mailto:argitu@gipuzkoa.eus) emaillean, edo 628 532 303 telefonon.

Bi tailerrei buruzko informazio gehiago, eskuragarri dago [argitu.eus](http://argitu.eus) web orrian. **K**

## Santiomendira eta ekialdeko mugetara bisita igandean, Beterri-Buruntzako irteera gidatueta

Sei irteera antolatu ditu Behemendik, eskualdeko sei herrietan. Astigarragan izango da igandekoa, eta Hernanin irailaren 26koa, Igorin eta Akolan.

### URUMEA BEHEMENDI

Herriarrek eskualdea ezagutzeko asmoz, sei irteera antolatu ditu Behemendik Beterri-Buruntzako udalerrietan; bakoitzean, irteera gidatu bana.

Joan den larunbatean egin zuten aurrenekoa, Andoainen, Buruntza mendiko magaletik Zumearako eliza eta dorretxeen inguruko historia eta istorioak

ezagutzeko. Eta bigarrena, datorren igandean bertan, Astigarragan egingo dute: Santiomendi eta ekialdeko mugarrak bisitatuko dituzte, goizeko 09:30etatik 13:30etara, Murgia jauregitik abiatuta. «Mugarik gabeko bidez gozatzeko aukera izango dugu, landaguneko eta gizatiartutako lurraldeak uztartzen diren ibilbide zirkular honetan. Mugarrien historia, Done Jakue Bi-

dearena... ezagutzeko aukera ere izango dugu», aurreratu dute.

Irteeran parte hartzeko, hori bai, aldezturirik eman behar da izena: [donostialdea@behemendi.eus](mailto:donostialdea@behemendi.eus) helbidera idatzi; edo 656 705 243 telefonora deitu, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 15:00etara. Bederatzi laguneko taldea osatuko dute gehienez.

### Igorin eta Akola inguruko trikuharrietara bisita, irailaren 26an

Horren ondoren, Hernanin egingo dute hurrengo irteera gidatua, irailaren 26an. Erefitotzu

inguruan izango da, Igorin eta Akola inguruko trikuharriak ezagutzeko baitituzte.

Urriaren 4an, Lasarte-Orian egingo dute irteera, herriko muralak eta eraikinak bisitatzeko, herriaren historiako pasarte ezberdinak ezagutzeko. Urrietan egingo dute urriaren 10ekoa, Adarramendiko inguruaz gozatzeko eta bertako aztarna megalitikoak ezagutzeko. Eta urriaren 18an izango da azkenekoa, Usurbilen: Urdaia auzoan barrena, bertan zeuden zeta, burdinola eta baserrien historia ezagutzeko dute. **K**

## Greba aurkezteko, zita gaur Biterin

### HERNANI IKASLE ABERTZALEAK

Greba deitu du Ikasle Abertzaleak taldeak, biharko, «klase presentzialak gelditzea exijitzeko, hezkuntza komunitatea osatzen duen langileriaren osasuna bermatua egon arte». Eta grebaren aurkezpena egingo du, hitzordua deitu du gaur, goizeko 11:00etan Biterin.

## Gaur arte epea, ikastaroetan

### HERNANI BITERIN

Luzatu egin zuten izena emateko epea, Biteriko ikastaroetan; eta gaur izango da azkeneko eguna. Internet bidez egin daiteke, [hernani.eus/kultura](http://hernani.eus/kultura) eta [hernani.eus](http://hernani.eus) webguneetan; edo Biterin bertan, 09:00-13:00 eta 16:00-20:00 orduetartean.

## Azkenekoan ere ezin, Barrenetxeak

### HERNANI ERREMONTEA

Dagoeneko kanporatuta egon arren, garaipen batekin bukatu nahi zuen semifinaletako ligaxka, Endika Barrenetxea hernaniarrak, Buruz Buruko Txapelketan. Baina galdu egin zuten, Urrizaren kontra (24-30).

## Pala ikastaroetan, izenematea zabalik

### HERNANI PALA

Urriarekin batera jarriko dituzte martxan bi talde, Hernaniko palistek. Batetik, infantil mailako neska-mutilen pala ikastaroa hasiko da: astelehen edota ostegunetan izango dira saioak, 15:45etan, ekainera arte. Izena emateko, [hernanikopalistak@gmail.com](mailto:hernanikopalistak@gmail.com) helbidera idatzi behar da, eta haurraren izen-abizenak eta adina bidali. Eta bestetik, 18 urtetik gorako emakumeen aisialdi taldea elkartuko da asteazketan, 10:00etan edo 19:00etan. Horretarako ere, izenematea emaillez.

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**GAUR** Bero handia egingo du gaur ere, bereziki goizean, sargori egongo baita, hegoaldeko haize harroarekin. Lainoak ugarituz joango dira, eta zerua estalita geratuko da iluntzerako. Orduan frexkatuko du pixka bat. **Min.18° / Max.34°**

**BIHAR** Nabarmen egingo du behera tenperaturak, bihar. Goizean hegoaldeko haizea ibiliko da, baina iparraldekoa sartuko da arratsaldean. Zerua lainotuta egongo da tarteak, eta baliteke zaparradaren bat ere botatzea, goizaldean bereziki. **Min.18° / Max.27°**

**DOBERA**  
EUSKARA  
ELKARTEA

**LAGUNTZAILEK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarra**

**Goizuetako Udala**

**Goizuetako Udala**

**Arango Udala**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**USKO**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

## Aurreko asteburuko postuei eutsi diete, arraunlari hernaniarrek

Kontxako Banderaren lehian aritu ziren atzo Eider Barba, Jone Pastor, Nerea Irastorza, Naroa Lizarreta, Nahia San Argimiro eta Xabat Pastor.

**HERNANI** ARRAUNA

Kontxako Banderaren bigarren jardunaldia jokatu zen atzo, Donostian; eta bertan izan ziren hainbat arraunlari hernaniar, eta beste hainbat Maialen traineruan aritutakoak. Horietatik, sei izan ziren atzokoan arraunnean egin zutenak, lau talde ezberdinekin; eta guztiek errepikatu zuten aurreko igandeko

postu bera, atzokoan.

Emakumezkoetan, ohorezko txandan aritu zen Eider Barba, Tolosaldearekin; eta laugarren bukatu zuen, Donostiarra bigarren sailkatuarekin eta Arraun Lagunak hirugarrenarekin oso lehia estuan aritu ondoren. Beste txandan aritu ziren, aldiz, Nerea Irastorza eta Jone Pastor Hibaikarekin, eta Naroa Lizarreta eta Nahia San Argimiro San

Juanekin. Seigarren izan zen Hibaika atzo, eta zortzigarren San Juan. Sailkapen nagusian ere, postu berdinetan bukatu zuten hiru traineruek.

Eta gizonzkoetan, Donostiarraren traineruan izan zen Xabat Pastor, beste behin. Seigarren izan zen Donostiarra atzo, aurreko igandean bezala, eta postu horretan bukatu du Kontxako Banderako lehia.

Oriok astindu zuen bandera emakumezkoetan, eta Hondarribiak gizonzkoetan. Haunditu egin zuten biek atzo, aurreko igandean lortutako errenta. **K**

## Chillida Leku zoriondu du Hernaniko PSE-EEK, urteurren borobilean

Museoaren garrantzia nabarmendu du Ricardo Crespok: «pandemia bukatzean, ekonomia berreskuratzeko tresna garrantzitsua izango da».

**HERNANI** PSE-EE

20 urte beteko ditu Chillida Leku, asteazkenean; eta museo zoriondu nahi izan du Hernaniko PSE-EEK, urteurren borobilean. Museo «zoragarria» dela goraiatu du Ricardo Crespo bozeramaileak, kultura eta natura uztartzen baititu; eta bere garrantzia nabarmendu du: «bestela izango ez zuen ikusgarritasuna ematen dio gure herriari». Izan ere, uste du «aukera» bat dela museo, Hernaniko eta eskualdeko turismoarentzat; eta horregatik, Udala animatu du museoarekin elkarlanean aritzera, herriko turismoaren sektorea indartzeko, Chillida Leku bere ekintzen «erreferentziatzeko» bilakatuz.

«Faktore bereizgarria da Chillida familiak bultzatutako museo, eta aukera eman digu bisitarietako toki paregabe gisa nabarmentzeko», azaldu du: «pandemiaren amesgaizto hau bukatzen denean, Chillida Leku tresna garrantzitsua izango da ekonomia berreskuratzeko, nazioarteko turismoarentzat itsasargi bilakatuko delako berriro». Crespok gogorarazi du, gainera, Time aldizkariak Chillida Leku sartu zuela bisitatzeko munduko toki onenen zerrendan (*World's Greatest Places 2019*); eta nabarmendu du Espainia mailako bakarra izan zela museo, iazko zerrenda horretan. **K**



Bankako Menditarren musika eta kantuekin, giro ederra sortu zen bazkalorduan, Iparragirre sagardotegian.

## Primeran girotutako bazkaria, Osiñagako auzotarrek

**HERNANI** OSIÑAGA AUZOA

Auzotarrentzako plan ederra prestatu zuen Osiñagako Auzo Elkarteak, aurreko iganderako bazkaria egin zuten Iparragirre

sagardotegian, Bankako Menditarren musika eta kantuekin girotuta. Aurretik, gainera, aizkolariak eta bertsolariak izan zituzten, sagardotegiko

kanpoaldean bertan. 60 lagun elkartu ziren, eta penaz geratu ziren, interesa zuten zenbait auzotarrek ezin izan zutelako sartu, aforo kontuagatik.

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespikatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**PILAR AZURMENDI IMAZ**  
(Eugenio Rodriguezen alarguna)

Herenegun hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Seme-alabak: Belen eta Jokin, Amaia, Nekane eta Julen, Eugenio, Jone eta Juanjo; bilobak: Maider eta Gustavo, Amaia eta Gotzon, Naia eta Josu, Julen eta Amaia, eta Eukene; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2020ko irailaren 14an**

OHARRA: Gorpu beila familia artean egingo da.

**MIREN ZUGASTI ZUBILLAGA**

Atzo hil zen, 97 urte zituela

- Goian bego -

Illobak: Itziar eta Joxan, Xabier eta Bernar, Jon eta Mari Carmen, Iñaki eta Jaione, Mikel eta Amaia; lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu, eta gaur egungo egoera dela eta, adierazten du meza bat aurrerago egingo dela. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2020ko irailaren 14an**

OHARRA: Gorputz laguntza bere familia artean egingo da.

**MIREN ZUGASTI ZUBILLAGA**

- Goian bego -

**ZUGASTI EGUREN SENDIAK**

**Hernanin, 2020ko irailaren 14an**

**BEGOÑA OLARAN ESNAL**

Bizitzaren distira ikusi duгу zure indarrean, zure duintasunean. Muxu handi bat

**INES ETA KONTXI ZURE LAGUNAK**

**Hernanin, 2020ko irailaren 14an**

**BEGOÑA OLARAN ESNAL**

Alaitasunean ordu ederrak elkarrekin pasatakoak garenok ez zaitugu ahaztuko.

**'BETIKOAK'**

**Hernanin, 2020ko irailaren 14an**

## IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**